Tesia gauzatzeko kanpoan egonaldiak egin dituzu... Bai. Bi egonaldi egin ditut: Granadako unibertsitatean sei bat aste, erabiltzen ditudan bitarteko batzuetan adituak direnekin ikasten. Eta gero Goteborgen (Suedia) hiru hilabete egin ditut nire gaiarekin lerrotuago dagoen pertsona batekin lan egiten. Ikasten nola egiten duten lan beste talde batzuek, nola antola-

“**MONDRAGON UNIBERTSITATEAN taldean lan egiten askoz gehiago ikasten dugu, horrek dauzkan tresna eta konplexutasun guztiekin**”

“**Sare industrialen datuak aztertu egiten ditut ohikoak ez diren patroiak detektatzeko**”

“**Garrantzitsua da ideiak kontrastatzeko norbait izatea, baina tesia norberak egin behar du, berea da azken ardura**”

tzen diren, laneko kultura hori barneratzen, kontzeptu tekniko batzuk ere bai...

Tesi baten egilea irudikatzen dugu ia anti-soziala, horretan bakarrik jarduten duena. Hala da? Zuk aukera izan duzu egonaldiez gozatzeko? Beti saiatu naiz egonaldietan pertsonak eta lekuak ezagutzen. Ikasi nahi baduzu nola egiten duten lan, kome-ni da testuingurua ikusi eta ezagutzea; eta aitzakia ere bada. Harreman sare faltan egunerokoan etxetik lanera eta lanetik etxerako bidea egiten duzu. Baina asteburua heldzean bi aukera dituzu: edo lana egin edo beste zerbait



bilatu. Nik Granadan zein Suedian aprobetxatu nuen inguruak ezagutu eta bizitza sozial apur bat egiteko. Suediako kasuan, hirian bi unibertsitate handi daude eta unibertsitateetan lan egiten duten kanpotarrentzat programa soziala dute: topaketak, bisita kulturalak, hitzaldiak... Argi dute isolamendua ez dela egokia talentuarentzat. Eskerrak, Suedian esaterako ez zegoelako bazkaltzera batera joateko ohiturarik ere. Granadan, aldiz, ez zegoen halako baliabiderik, baina han errazagoa zen integratzea.

Zeintzuk ari dira izaten tesia egiterakoan zailtasun handienak? Lehenengo jakin behar da ondo zer egin

den gaur egunera arte eta pauso berriak planifikatu. Baina batzuetan pauso horietako bakar bat ematea, egun bateko lana izan zitekeena, aste-beteko lana bihurtu daiteke. Zaila da ondo neurtzea.

Zer eskatzen du tesi bat lantzeak, sakrifizio, dedikazioa...? Tesi doktoretza ez da denbora jakin batera lerrokatuta dagoen zerbait, gehiago dago emaitzetara bideratuta. Ikertzaile baten jardunean da lehen ikerketa handia. Ez da bakarrik emaitza batzuk lortzea, da baita ere ikasketa prozesu bat ikerketa prozesuari buruz, transbertsalagoa da. Malgutasuna oso garrantzitsua da, malguak izan behar gara birpentsatzeko.


Tesi bat egiterakoan ekipo bat zarete? Galdera ona da. Zuzendari baten lana da tesian laguntzea, zu bideratzea. Eta emaitzak eskuratzeko esan dezake emaitza horiek baliagarriak diren edo ez. Baina ardura, azken ardura doktoretza egiten dabilenarena da. Garrantzitsua da ideiak kontrastatzeko norbait izatea, baina tesia norberak egin behar du.

Eta zer ematen dizu tesia egiteak? Merkatura begira izen bat, erronka pertsonal bat betetzea? Biak. Hainbat urtetan esparru zehatz batean lanean ibiltzeak ematen dizu jakintza asko gai horri buruz. Eta bestetik ikasten da nola ikertu, zein izan daitekeen prozesua. Pertsonalean bada erronka bat, bada interesgarria, ari zarelako lanean gauza berriekin. Ematen dizu berriena sarbidea, irrika hori... Pertsonalki poz handia ematen du.

Zer esango zenioke tesi bat egitekoan zalantzan dagoen bati? Hasieran zalantza horiek beti egongo dira: emaitzak lortuko ditudan, hainbeste ordu eta ahalegin, bideragarria izango den... Ni, gustukoa izanda gaia, eroso ibili naiz. Zalantzan dagoen bati esango nioke probatzeko, badelako interesgarria eta oso desberdina delako beste edozein lanekin alderatuta. Beste edozein lanetan eskura izango ez dituzun zenbait gauza probatu, arakatu, ikertu ahal izango dituzu. Ematen du aukera beste edozein lanetan egin ezin dituzun gauzak egiteko. Eta gauza berri eta punta-puntakoak probatzeko.

Kable gabeko konexio fidagarriak bermatu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO TELEKOMUNIKAZIO ETA SEINALAREN TEORIAKO IKERKETA TALDEA EUROPA MAILAKO SCOTT PROIEKTUAN MURGILDUTA DABIL. INDRA ENPRESAREKIN BATERA TRENEN ARTEKO KABLE GABEKO KONEXIOA IKERTZEN DABIL ERABILERA DESBERDINEKIN. AURTENGO MARTXOTIK HASITA HIRU URTE HARTUKO DITUEN PROIEKTUAK BI LERRO NAGUSI IZANGO DITU.



Goi Eskola Politeknikoa | Scott akronimoaren esanahia da Secure Connected Trustable Things; hau da, konektatu nahi dira elementu desberdinak kable gabe eta modu seguruenean. Segurua esan ohi denean bi adierak ditu; segurua erasoan aurrean eta segurua fidagarri gisa.

Scott proiektu kontsorzio europarra da, 57 eragile batzen dituen, eta Goi Eskola Politeknikoa ere parte da. Bertan daude, Acciona, Indra, Tecnia, Tekniker, Nokia, NXP, Philips, Bosch eta beste asko. Horietako askok, Goi Eskola Politeknikoa barne, aurretik bat egin izan dute Europa mailako beste proiektu batzuetan eta oraingoan ere indarrak batu dituzte.

Indrarekin elkarlana

Ikerketa taldeak Indra enpresarekin batera bi ikerketalero abiarazi ditu, biak trenen komunikazioei buruzkoak. Lehenak asko du ikerketatik; helburua dabagoietansentso-re batzuk kokatu eta horiek nodo-arekin kableak erabili

Ikerketa taldek Indra enpresarekin batera bi ikerketalero abiarazi ditu, biak trenen komunikazioei buruzkoak.

gabe konektatzea. Ikerketa honen pisu handiena doktoregai batek hartuko du. Bigarrenak, berriz, gehiago dauka garazetik: trenetako bagoiek orain arte kable eta bestelakoen bitartez duten lotura kable gabe egin nahi da. Hala, komunikazioko algoritmoen bitartez sistemak prestatu beharko dira bagoiek uneoro elkarren artean informazioa izan dezaten eta erabat ziurra izan dadin. Indra eta Goi Eskola Politeknikoaren artean prototipo bat sortuko dute bien artean erabakiz ardura nagusiak nola banatu. Goi Eskola Politeknikoko ikertzailen ardura nagusia komunikazio protokoloak zehaztu eta hauek programatzea izango da Indraren prototipoan erabilgarri izateko.

Martxan da Euspot-en seigarren edizioa

'ANIZTASUNAK ABERASTU EGITEN GAITU' LELOPEAN EGINGO DA EUSPOT EUSKARAZKO SPOT LEHIAKETAREN 6. EDIZIOA. LEHIAKETAREN HELBURUAK DIRA EUSKARAZKO SORMENA BULTZATZEA ETA PUBLIZITATE ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA.



Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Gai soziala jorratuko du Euspot Euskarazko Spot Lehiaketak bere 6. edizioan: aniztasuna. Jasotako iragarkiek balio beharko dute aniztasunaren alde edo edozein motatako diskriminazioaren aurka hausnartzeko eta sakontzeko. Horretarako, era askotako gaiak jorratu ahal izango dira iragarkietan: jatorria, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa, generoa, sexu-orientazioa, adina...

Apirilaren 26ra arte egongo da irekita epea 20 eta 30 segundu arteko iragarkiak bidaltzeko. Aurtengo edizioak 2.250 euro banatuko ditu saritan lehiaketak dituen lau sailetan: lehiaketako spotik onena, MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleek egindako spotik onena, DBHklip gaztetxoaren saria eta Ikusleen saria. Sari banaketa ekitaldia izango da maiatzaren 11n Aretxabaletako Arkupe Kultur-etxean.

Antolatzaileak dira Gipuzkoako ForuAldundia, Mondragon Unibertsitatea, Aretxabaletako Udala, Arizmendi eta Arteman Komunikazioa. Eta edizio honetako gaiari babesa eman diote, besteak beste, hurrengo erakundeek: EHGAM, Chrysallis, AFAGI, Emaus, Gureak, Jatorkin, Banaizbagara...



Conversión de energía para turbinas eólicas DC offshore

Tesis | El trabajo de Manex Barreneitea se centra en analizar distintas

tipologías de parque para conectar las turbinas DC a las líneas de transmisión DC. Ahora bien, la principal contribución de la tesis reside en el diseño del transformador DC-DC, que constituye uno de los principales retos tecnológicos a superar, pero que es requisito indispensable para la implantación de redes de colección de corriente directa (DC), más eficientes y compactas.

Mondragon Team Academy-ko bi startup Berriup! finalean

Enpresagintza Fakultatea | Berriup! azeleragailura 87 startup aurkeztu ziren eta horietatik epaimahaiak hamar finalista aukeratu ditu. Ekitaldia Tabakalera egin berri da, eta hamar horietako bi Mondragon Team Academy-koak dira, hain zuzen ere Enpresagintzako LEINN graduak.

Tabakalera finaleko sailkapenean beraien startup-ak aurkeztu zituzten ekintzaile taldeek Mondragon Team Academyko ibilbidean mugari garrantzitsuena jarri zuten, hainbat arrazoiengatik. Bi taldeak diziplina anitzeko profileko kideez osatuta daude; hala leinerez gain, ekintzailetasunetik harago doazen bestelako espezialistak aritu dira: teknologoak, garatzaileak, gizarte zerbitzuetako langileak... Horrez gain, gai izan dira negozio eredu berritzaileak diseinatu eta ideia horiei inbertsioa eskuratzeko moduko garapena egiteko.

Virtualia World eta Aldazank

Lehenik eta behin, Jorge Maylin eta Iñaki Aranburuk Virtualia World aurkeztu zuten, errealtate areagotua eta bidaiak batzen dituen proiektua. Virtualia World bidaietako edukiak errealtate birtualean banatu eta antolatzeko plataforma da. Maylin eta Aranburu 2016an graduatu ziren LEINNen Lemon taldearekin, Bidasoako laborategian.

Ostean, Uxue Irigoyen eta Alaia Amubietak Aldazank proiektua aurkeztu zuten. Genero berdintasuna sustatzeko plataforma da. Proiektuaren helburua da on line plataforma bat sortzea, ekonomia independentearen haritik produktu artisauak garatzen ari diren emakumeei laguntzen dizkieten komunitate eta elkarteak elkarlanean jartzeko.

Ikustear dago proiektuak azeleragailuaren parte izango diren ala ez, baina ekintzaile taldeek jarrera eta ziurtasuna erakutsi zuten beraien proiektuak defendatzen. Horregatik, zorientzekoa izan zen beraien lana.



Técnicas de velocidad variable en procesos de rectificado

Tesis | Jorge Álvarez define estrategias para optimizar la puesta a punto y el análisis del proceso de rectificado, aplicando velocidades variables controladas sobre los parámetros principales: las velocidades de avance, de giro de pieza y de giro de muela rectificadora. Ha desarrollado una metodología para obtener los parámetros de variación de la velocidad de giro de pieza para eliminar el *chatter* y ha generado un software CNC para la variación conjunta de los parámetros que mejora los resultados en pieza y en proceso comparado con los ciclos convencionales.

El debate de Brainy Tongue

SABOR, PERCEPCIÓN, LENGUAJE Y METABOLISMO CENTRAN EL DEBATE DE BRAINY TONGUE



Basque Culinary Center-Facultad de ciencias gastronómicas |

El simposio 'The Sensory Logic of the Gastronomic Brain', celebrado en Basque Culinary Center, ha tratado el uso y los límites del lenguaje en la cocina, el mapa del sabor en el cerebro, la saciedad y el metabolismo. Se trata la primera actividad organizada por Brainy Tongue, una iniciativa de colaboración entre científicos y cocineros promovida por Mugaritz, el Centro de Regulación Genómica (CRG) y Basque Culinary Center, con la colaboración del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco y AZTI-Tecnalia, que busca adentrarse en los misterios que rigen la percepción y la sensorialidad.

Empezamos a saber cómo la información sensorial viaja al cerebro y dónde se procesa; el sabor, más allá de su papel clave en la supervivencia, nos permite imaginar; la apariencia de la comida y las palabras describen un plato modulan nuestra percepción; la saciedad no está reñida con desear comer más, siempre y cuando corresponda a un sabor distinto... Estas son algunas de las conclusiones alcanzadas durante el simposio.

Colaboración con VECTIA R&D en el desarrollo de sistemas de optimización energética

Escuela Politécnica Superior | VECTIA y la Escuela Politécnica Superior han firmado un acuerdo marco de colaboración técnico-científica para la puesta en marcha de un programa de investigación y transferencia colaborativa. La plasmación del acuerdo ha sido el establecimiento, con carácter permanente, del Aula VECTIA R&D en las instalaciones de la universidad en el Polo de Innovación Garaia. En este espacio se desarrollan proyectos de investigación básica y aplicada relacionadas con la actividad de VECTIA R&D, especialmente en el entorno de la optimización energética de autobuses híbridos y eléctricos. En el Aula VECTIA R&D también se desarrollarán tesis doctorales,

formación especializada y, en general, todo tipo de actividades que contribuyan al incremento del conocimiento para todas las partes.

El acuerdo confiere especial importancia al desarrollo y atracción de talento joven susceptible de incorporarse a la organización de VECTIA R&D. Para ello, la Escuela Politécnica Superior se compromete a poner en marcha dinámicas que faciliten la participación en los proyectos de investigación no solo de personal docente e investigador, sino también de personal investigador en formación en el marco de su tesis doctoral o de alumnos en su proyecto fin de carrera o en alternancia estudio-trabajo.



Expandir los límites de los negocios: un objetivo centrado en clientes, alianzas y multiculturalidad



Facultad de Empresariales | Mariangélica Martínez C.

Cada vez con más frecuencia escuchamos una poderosa frase: la rapidez con la que evoluciona el entorno competitivo actual exige un comportamiento flexible y dinámico por parte de las organizaciones que apuestan por elevar su esperanza de vida. La idea que subyace es que las organizaciones con esta capacidad de adaptación a los cambios serán aquellas que bajo un delicado equilibrio entre el corto-medio y largo plazo promueven la autonomía y el empoderamiento de sus personas, generan espacios de co-creación con agentes (el cliente) y además cuentan con estructuras de conversión de inputs en valor (monetizar).

La figura de referencia es el Business Development Manager (Responsable de Desarrollo de Negocio, Desarrollo Corporativo o similar), siendo especialmente llamativo el hecho de que, en un importante número de organizaciones, la persona que desempeña esta función prima el enfoque operativo, centra su ámbito de actuación en mejorar la productividad y la eficiencia.

No obstante, expandir los límites del negocio actual para mantener

vigente la ventaja competitiva de una empresa exige una redefinición de esta función, que trasciende el enfoque operativo para poner su atención en un enfoque estratégico: basado en la prospección/creación de oportunidades de negocio con y para el cliente. Incrementar la productividad y la eficiencia a corto plazo, y generar caminos de creación de valor con el cliente para abordar el futuro.

La configuración de soluciones complejas en formatos simplificados, ofertas de alto valor añadido que combinen elementos diferenciales y puedan ser expresadas de forma sencilla son un reclamo básico de los clientes más exigentes (importante número de empresas de nuestro entorno). Y para ello, la capacidad de desarrollo de cliente, de creación y gestión de alianzas inteligentes y de gestión de la multiculturalidad se perfilan como 3 palancas interconectadas que pueden favorecer a desarrollar este enfoque.

Desde el Centro de Investigación en Gestión Avanzada MIK nos embarcamos en este gran reto: promover la redefinición de la función de Business Development Manager en las organizaciones como vía para desplegar con éxito estrategias de crecimiento.

Acuerdo para largo plazo entre SENER y la Escuela Politécnica Superior

Escuela Politécnica Superior | El acuerdo suscrito entre la firma de ingeniería y construcción SENER y la Escuela Politécnica Superior tiene como objeto la puesta en marcha de un programa de investigación y transferencia colaborativa de conocimiento centrado en las líneas de investigación con las tecnologías claves para SENER.

Se establecerá con carácter permanente el Aula SENER en las instalaciones de MONDRAGON UNIBERTSITATEA, y se desarrollarán proyectos de investigación básica e investigación aplicada, actividades de tesis doctorales, formación especializada y actividades para incrementar el conocimiento por todas las partes y redundar en la mejora a corto y largo plazo de la eficiencia y competitividad de SENER. Asimismo, ambos han convenido definir un “roadmap tecnológico” para planificar a 4 años vista las líneas de investigación de este programa de colaboración.

Este convenio tiene su origen en los proyectos de investigación bajo contrato, suscritos entre ambas entidades durante los últimos siete años. Han formalizado proyectos de I+D y tesis doctorales en torno a las actividades de SENER: técnicas de mantenimiento predictivo en sistemas aeroespaciales, desarrollo de tecnologías de fabricación por procesos de deformación para aleaciones de alta resistencia a tensiones y temperaturas y el diseño de máquinas eléctricas para aplicaciones espaciales.

Abian da KoopFabrika egitasmoa



Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Hasi dira lanean KoopFabrika, ekonomia sozial berria eta ekintzailetasun soziala sustatzea helburu dituen egitasmoaren parte-hartzaileak.

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki Ikertegiak eta Olatukoop elkarteak bultzatutako egitasmoa Gipuzkoako hiru eskualdetan lekutuko dute: Debagoienean, Oarsoaldean eta Buruntza-Beterriudaletan.

KoopFabrika zuzenduta dago, besteak beste, ekonomia sozialarekin lotura duten proiektuak garatu eta ekintzara pasatu nahi dutenei, elkartee-

tako kideei nahi dutenak jarduna profesionalizatu edo erakundean bertan proiektu berriak garatu nahi dituztenei. Bi multzotan dago antolatuta partaideen taldea: batetik, prestakuntzan parte hartuko duten 42 lagunak daude, eta, bestetik, proiektuen tutore izateko formazioa jasoko duten 30 lagunak.

Lankidetzan sorturiko programa honetan parte hartzen dute Beterri-Buruntzako udalak, Oarsoaldea eta Debagoienako garapen agentziek eta Bagara Herrigintzan kooperatibak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziarioekin.

Analizan la experiencia del usuario en la banca online de Laboral Kutxa

LABORAL KUTXA Y MONDRAGON UNIBERTSITATEA TIENEN VARIOS FOCOS DE COLABORACIÓN. UNO DE ESTOS ES EL APOYO DE DISEÑO BERRIKUNTZA ZENTROA A LABORAL KUTXA EN EL TESTEO DE LA NUEVA BANCA ONLINE



MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Laboral Kutxa y MONDRAGON UNIBERTSITATEA cuentan con alianzas y colaboraciones en muy diversos planos. Por ello, se dio con total naturalidad que un equipo de Diseinu Berrikuntza Zentroa, a través de uno de sus equipamientos, testeara las experiencias de los usuarios con la nueva banca online de Laboral Kutxa.

El departamento de diseño e innovación de la universidad acometió la tarea en enero y desde entonces dos investigadores y un alumno de fin de grado están testeando la experiencia de uso de la nueva banca online con usuarios reales, utilizando el eye tracker y el face reader. El eye tracker realiza un seguimiento de los ojos para identificar y evaluar los puntos en los que más se fija la mirada. El face reader, por su parte, es un software para el análisis automático de las expresiones faciales para identificar las emociones del usuario. De esta manera, Diseinu Berrikuntza Zentroa está investigando al mismo tiempo la usabilidad del sistema y la experiencia de marca de Laboral Kutxa. Estos testeos realizados con usuarios reales en sus sucursales están dando muy buenos resultados para apuntalar el nuevo sistema de banca online a instaurar.

Produktuen fabrikazio bizi zikloa hobetzen

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKERLARI TALDE BATEK PARTE HARTUKO DU PRODUCTIVE 4.0 IZENENKO PROIEKTU EUROPEARREAN. IOT ETA SISTEMA ZIBERFISIKOAK FABRIKAZIO MUNDUAREKIN LOTU ETA PRODUKTUEN BIZI ZIKLOKO FASE DESBERDINETAN ONURAK EKARTZEA IZANGO DA HELBURUA.

Goi Eskola Politeknikoa | Inguruko industria eta ikerketa alorrean bogan dagoen gaia da Industria 4.0. Urteak darama Goi Eskola Politeknikoa IKT eta Fabrikazioaren alorrek elkarrekin lotzeko hainbat ikerketa proiektuetan lanean. Horren adierazle da martxan dagoen MANTIS ikerketa proiektua.

Oraingoan, beste proiektu batean barneratu da fakultatea: Productive 4.0. ECSEL barruan kokatzen den proiektu europar bat da. Helburu nagusia da produktuen fabrikazio bizi zikloan IoT eta Sistema Ziberfisikoen gaitasunez baliatuz, produktu hauek hobetzeko plataforma bat sortzea. Sentsoreetako denbora errealeko informazioaz eta aurrez izandako esperientzietako datuez baliatuz, aldiro hartu beharreko erabakiak egokienak izatea du helburu.

Mondragon Taldeko partaide gehiago ere izango ditu Productive 4.0-k: Korporazioa bera, Ideko, Danobat eta Ulma Embedded Solutions. 114 partaide ditu guztira proiektuak. Infineon enpresak koordinatuko du eta AIRBUS, BOSCH, BMW edo Philips ere izango dira.



EKIDE dona un equipo de visión artificial a MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Escuela Politécnica Superior | EKIDE, S.L. y la Escuela Politécnica Superior de MONDRAGON UNIBERTSITATEA han firmado un convenio de colaboración que tiene como objetivo formalizar la relación entre ambas organizaciones para el desarrollo de tecnologías aplicadas en el ámbito de la visión artificial.

La cooperación entre ambas partes permitirá el desarrollo de tecnología, la formación práctica

de alumnos de la Escuela Politécnica Superior, el seguimiento por parte del profesorado de las innovaciones tecnológicas en este campo, la generación de documentación técnica y de manuales didácticos y la capacitación de EKIDE como proveedor experto en este campo, entre otras.

En el contexto de este acuerdo de colaboración, EKIDE, S.L. ha hecho donación a la Escuela Politécnica Superior de un equipo de visión artificial. Este equipa-

miento será destinado para su utilización como material de apoyo a la formación y a los trabajos de investigación del grupo de Teoría de la Señal y Comunicaciones (TSC). Una de las áreas de trabajo de este equipo de investigación de la Escuela Politécnica Superior se orienta a dotar de mayor inteligencia a los procesos de fabricación mediante la aplicación, entre otros, de sistema de visión artificial en entornos como la inspección de piezas y la caracterización de materiales.

Un sistema exitoso para medir la diabetes

UN EQUIPO DE CINCO ESTUDIANTES DE LEINN HA DESARROLLADO UN SISTEMA EXITOSO PARA MEDIR LA DIABETES. ACABAN DE PRESENTARLO EN UN CONGRESO EN BOSTON (EEUU) Y HEMOS CHARLADO CON AMAIA GARCÍA, UNA DE LAS EMPRENDEDORAS DESARROLLADORAS.



“Creemos en la filosofía de que los dispositivos inteligentes deben estar dentro de la rutina diaria de las personas y no alterarla”

Enpresagintza Fakultatea | La idea fue concebida durante las jornadas ‘Hacking Chronic Disease’ (hackeando enfermedades crónicas), organizadas por el MIT el pasado mayo en Bilbao. 40 jóvenes participaron en la primera edición del Hacking Chronic Disease para buscar ideas creativas y solucionar la vida diaria de los pacientes.

¿Cómo os aventurastéis? Todos tenemos algún diabético cerca y decidimos centrar nuestro producto en la diabetes. No teníamos ninguna experiencia desarrollando dispositivos biomédicos pero todos teníamos en común una gran pasión por la salud y la tecnología.

¿Cuáles fueron los pasos?

A raíz de la hackathon el proyecto fue incluido directamente en la aceleradora de proyectos del MIT. Durante 6 meses hemos podido testear y pivotar nuestra idea, gracias al feedback recibido por clínicos, expertos y asociaciones de pacientes de Estados Unidos y de España. Y gracias a Roca hemos podido probar nuestro primer diseño y adaptarlo mejor.

¿Qué ha sido lo más difícil? ¡Trabajar a distancia durante estos 6 meses y con un equipo interdisciplinar! Cada uno de nosotros aportó desde su experiencia y su disciplina y los roles salieron

naturales. Pasamos mucho tiempo juntos y esto nos ayudó a afianzar el equipo.

¿En qué consiste el sistema? Creemos en la filosofía de que los dispositivos inteligentes deben estar dentro de la rutina diaria de las personas y no alterarla. No queríamos que nuestro usuario tuviera que cambiar todo su inodoro y hacer una gran obra. Que fuese algo simple y con 0 coste.

¿Cómo ha sido la experiencia en Boston? 12 equipos finalistas hicieron sus presentaciones finales sobre diversas tecnologías en el ámbito salud en MIT (Massachusetts Institute of Technology) en la final del program IDEA 2 GLOBAL. Ha sido una experiencia increíble y de crecimiento exponencial. Y la mayor recompensa la cara de los expertos que nos vieron en septiembre, con una simple idea, a tener una idea con base y con vistas a futuro.

¿Y estáis ya con un nuevo proyecto? Sí. Hemos pivotado gracias al feedback y a cocrear con los clínicos y expertos. Se trata de un dispositivo que ayuda a los váteres a ser inteligentes y es capaz de medir datos de salud (parámetros biométricos) como la glucosa. Durante este proceso hemos visto otras posibles aplicaciones como detección precoz de fallo renal, insuficiencia cardiaca e hidratación.

Unibertsitatearen etorkizuna aztertzen

Tesia | ‘Escenarios para MONDRAGON UNIBERTSITATEA al 2025’ tesia aurkeztu du Eugenio Astigarraga Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileak. Azterlan horretan ikertzaileak, prospektibaren tresna desberdinak erabiliz, erreferentziatuz hartutako data horretarako agertoki desberdinak identifikatu ditu. Unibertsitateko zein kanpoko ehun pertsona/talde esanguratsu baino gehiagoren ekarpenak aintzat hartuta, MONDRAGON UNIBERTSITATErako “etorkizun desiragarria” (hainbat posibleen artean) irudikatzen duen agertoki berria definitzen da; eta horrekin batera, tesi honetan deskribatzen dira agertoki horretara heltzeko laguntzaileak izan daitezkeen beste hainbat proposamen, jarduera, ataza eta mugarri ere.



Liburu solidarioa

Nazioarteratzea | Gure lankide Angel Gallo liburu argitaratu berri du. Bertan Jaimeren istorioa kontatzen digu. Jaime Peruko herri txiki batean bizi den ume bat da. Gaixorik dago, kalera irtetea ezinezkoa zaion puntura arte gaixo, eta hala ere bizitzaz gainezka du barnealdea. Baina hau ez da tristeziaren inguruko istorio bat: sabairik gabeko etxe batetik abiatuta, behinola handi izandako herrialde bat erakusten duen liburu da hau, pertsonaia ezberdinen miseria eta komerien artean gurenarengandik oso ezberdina den errealitate bat agertuz bidean.

Gaztelaniaz idatzia, lehen edizio fisikoa jadanik agortuta dago eta soilik Amazon-en eros daiteke. Bigarren edizioak (luzatua eta zuzendua), 2017an zehar ikusiko du argia. Irabazi guztiak Jaimeren sendiarentzat izango dira.

“Bertako irakasleek konfiantza ematen didate eta hori oso garrantzitsua da”

JOKIN ALTUNA PILOTARIA ETA IKASLEA.

GAZTE AMEZKETARRA LAU TERDIKO TXAPELKETA JOKOAN DABIL TINKO AZKEN BI DENBORALDITAN. HORREZ GAIN, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN IRAKASLETZA ON LINE IKASTEN DIHARDU. BIETAN GUSTURA DABILELA AITORTU DU.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA |

Amezketan jaio eta pilotan jokatzea, dena bat da? (Barre). Badira beste kirol batzuetan aritzen diren ume eta gazteak ere, baina bai, egia da, herri pilotazalea dela. Niri txiki-txikitatik datorkit, gainera nire bi osabak erremontean aritzen ziren.

Zer-nolakoa da afizioa ofizio bihurtzea? Gauza batzuk aldatu dira: kalean ezagunagoa naiz, telebista aurrean jokatzen dut, presio gehiago daukat eta gaizki jokatzen dudanean kritikak entzun behar izaten ditut, baina nik lehengo ilusio berarekin jokatzen dut. Nire ametsa zen pilotan modu profesionalean aritzea eta gauza batzuk utzi behar izan baditut ere, oso pozik nago. Lan bat da, ez da batzuek uste duten txollo-a, baina txirrindulari edo atleta izatea hau baino gogorragoa dela uste dut.

Argi zenuen ikasketak egin nahi zenituela, ezta? Bai. Pilotak egunean gutxienez hiruzpalau ordu kentzen dizkit, baina diziplinarekin gauza gehiago egin daitezke; gainera, ondo datorkit burua beste gauza batzuetan ere jardutea. Debutatu eta hurrengo urtean Irakaskuntzan matrikulatu nintzen; argi nuen ikasi nahi nuela. Ez dakigu

etorkizunak zer ekarriko duen, baina irakaskuntza gustuko dut eta umeekin ondo moldatzen naiz.

Zer ari da izaten zailena?

Badira garai batzuk partiduetan-eta kanpoan ibili behar izaten dudala. Unibertsitaterako lan asko egin behar izaten ditugu eta behin baino gehiagotan prestatu ditut lanok bidaian edo partiduen ostean. Dena dela, ikasgai multzoak hartzen ditut, ez guztiak. Orain bigarren kurtsoan nabil eta aurrekoan baino hobeto daramat.

Horregatik aukeratu zenuen on line modalitatea? Bai, berez MONDRAGON UNIBERTSITATEra joateko arrazoia izan zen nik nahi nuen on line modalitatea eskaini zidala. Bi astetik behin irakasleekin batzen naiz, eta gainontzekoa etxetik egiten dut.

Zer aurkitu duzu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean?

Ez neukan ia erreferentziarik, baina oso gustura nago. Oso jator hartu naute hasieratik, nire egoera kontuan hartuta malguak izaten ari dira eta, esaterako, aldi bakoitzean zer ikasgai hartu aholkatzen didate. Bertako irakasleak oso gertukoak dira, konfiantza ematen didate, eta hori oso garrantzitsua da.



ARGAZKIA: JULEN URIBE ASPE PELOTA

“Gure helburua da gazteak prestatzea transmisioaren bidetik”

JAVI RIVERO - BATEAN GASTRONOMIA ENPRESAKO SORTZAILEA VILLABONARRA IZATEZ, BASQUE CULINARY CENTERREN IKASI DU GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEETAKO GRADUA. IMANOL ZUBEZU TOLOSARRAREKIN BATEAN PROIEKTUA SORTU DU ETA BAITA PAGOTXAK.EUS WEBGUNEA ERE.



Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía gradua? Lehenengo soinu teknikari gisa aritu nintzen. Ondoren, Diseinuko ingeniari izan nintzen baina utzi egin nuen eta lagun baten bitartez Basque Culinary Center ezagututa izena emateko erabakia hartu nuen. Arlo teknikoetik etorrira, asko erakarri zidan gastronomiarekin lotutako fisika eta kimikak, eta baita ikerketak. Gainera, 100 ikasle inguru hasiginen, munduko 15 herrialdeetatik etorritakoak eta hori ere esperientzia izugarria izan da. Gainera, beraien bitartez Peru eta Japon bisitatzeo aukera ere izan dut.

Emaitza emankorra izan da, ezta? Liburua publikatu duzu, webgunea argitaratu, enpresa berria sortu...

Bai, eremu askotara iristeko aukera ematen dit graduak eta hori sorpresa izan da, mundu txikiagoa espero nuen! Ikasten nengoela nire inguru ondo lantzen ahalegindu nintzen, jende berria ezagutzen, toki desberdinetan lana egiten, kontaktuak egiten... Ikastaroak ematen hasi nintzen Villabona nire herrian, eta hortik sortuzen ‘Herriaren goilara’ liburua, oso ezagunak diren errezetekin. Imanol Zubelzu tolosarra ezagutu nuen, bera ere Basque Culinary Centerreko ikaslea

eta ni bezala gestioa eta berrikuntzan espezializatua. Biok hasi ginen formazioa eskaintzen, aholkularitza saio eta ekitaldietan parte hartzen, Pagotxa.eus webgunea sortzen... abiadura azkarra hartu genuen. Hori guztiari nolabaiteko bateratasuna emateko, iaz Batean enpresa sortu genuen eta orain proiektua definitzen ari gara, hausnarketa prozesuan.

Zein izango da jarduera eta zuen helburua? Estrategikoki, argi dugu gure helburua gazteak prestatzea dela transmisioaren bidetik. “Hazi onik gabe ez da bigarren lorik” esaldia funtsezkoa da guretzat, lehena zortez izan daitekeelako baina ez dago zaindu gabeko bigarrenik. Hori lortzeko balioan jarri nahi dugu gure egiteko modua. Horrez gain, gastronomiaz erbitzua ere eskaintzen dugu, taldeentzat menu bereziak prestatuz. Hor ere hurbiltasuna dugu oinarri, bertako hornitzaileen bitartez.

Eta Ameztoi enpresan ere lanean diharduzu... Ameztoi enpresan hirugarren mailako praktikak egin nituen eta urtebete beranduago proiektua ere bertan garatu nuen, ikerketaren arlotik. Ondoren, bertan lanean hasi nintzen eta gaur egun I+G saileko koordinatzailea naiz. Askok gustatzen zait nire lana, aske sentitzen naiz, etengabe berritzen eta gauza berriak frogatzen.

Athlon Kooperatiba Elkarreak hiru fakultatetan zerbitzua

ATHLON KOOP. ELKARTEAK JARDUERA FISIKO ETA OSASUNAREN SUSTAPEN ETA PREBENTZIOAN ESPERIENTZIA DU METATUA ETA URTEAK DARAMATZA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HIRU FAKULTATETAN ZERBITZUA EMATEN.



Kirola | Unibertsitate Legeak ezarritakoaren arabera, heziketaren baitan kirola eta osasuna sustatu behar dira unibertsitate guztietan. Testuinguru horretan, Athlon Kooperatiba Elkarrea orain dela hogeitun urte hasi zen kudeatzen kirol zerbitzua eta gaur egun MONDRAGON UNIBERTSITATEko hiru fakultateetan du kirol arduraduna. Gorka Martínez de la Hidalga da fakultate guztien koordinatzailea, antolatzen diren ekimen guztietan koherentzia eta oreka mantentzeko.

Bizimodu osasuntsua sustatzea

Kirolaren bidez bizimodu osasuntsua sustatzea da kirol zerbitzu honen helburu nagusia eta horren harira, lau esparrutan eskaintzen dute zerbitzua. Martínez de la Hidalga aipatzen duenaren arabera, “alde batetik, CSDren bitartez (Consejo Superior de Deportes), ikasleen arteko Espainiako txapelketak antolatzen dira; eta horretarako, bertan parte hartuko duten ikasleak aukeratzeko, Euskadiko hiru unibertsitatek gure arteko txapelketa antolatzen dugu alde aurretik. Horrez gain, unibertsitate bakoitzak bere txapel-

keta propioa ere antolatzen du. Gure unibertsitatean, esaterako, campus guztietan egiten ditugu txapelketak eta, datu bezala, aipagarria da 2016an 600 ikasle desberdin izan genituela txapelketa desberdinetan parte hartzen”.

Irteerak eta ikastaroak zank

Horrez gain, Athlon Kooperatiba Elkarreak irteera eta ikastaroak ere antolatzen ditu, jarduera fisikoarekin lotuta beti ere: eski irteerak, masaje ikastaroak...

Kirol instalakuntzen erabilpena

Gainera, Athlon Kooperatiba Elkarreak ikasleei jarduera fisikoa bere kasa egiteko aukera ere errazten die, edozein momentutan, eta inguruko kirol instalakuntzak erabiltzeko hitzarmenak gauzatu.

Bestelako ekintzak

Eta, azkenik, aisialdi osasuntsua sustatzeko bestelako ekintzak ere bultzatzen dituzte: kirol ikuskizunak ikusteko irteerak, logotipo eta argazki lehiaketa... “beti ere kirol zerbitzua ezagutzera eman eta parte hartzea bultzatzeko”, azpimarratu du.

Ika Mizkaren saioa egin dute Orona Ideon



Euskara | Ika Mizka Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gaztezulo aldiriak 2012an abiarazitako proiektua da. Horren helburua da euskararen inguruan hausnarketa egiteko gazteak mahaiaren bueltan jartzea. Azkenik, martxoan ospatu zena, MONDRAGON UNIBERTSITATEak Galarretan duen Orona Ideo fakultatean izan zen.

Ika Mizka ika-mika eta zizka-mizka kontzeptuen arteko nahasketa da. Euskal Herrian kontu garrantzitsuak mahaiaren bueltan eta jatekoaz lagunduta konpontzen direnez, ekimen honetan ere hitzak eta jatekoak, biak, batzen dituzte. Harrera oso ona izaten du eta giro onean hainbat ondorio esanguratsu batzen dituzte.

2012ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira sortu zen ekimenak ibilbide emankorra izan du orain arte eta asko dira ekimenean parte hartu duten gazteak. Gazteen topaguneak izaten ditu jomuga eta beste behin

MONDRAGON UNIBERTSITATEko instalazio batzuk hartu zituen kokaleku. Hala, dozenaka ikasle mahiaren bueltan batu zituzten ekimen gazte eta berritzailean euskararen gaur egungo egoera eta hizkuntza honekiko dituzten bizipenak partekatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasun Saileko zuzendari Mikel Irizarrek argi nabarmendu zuen ekimenaren “zergatia euskararen erabilera sustatzea” dela eta erabilera “handiagoa ez izateko sor daitezkeen oztopoak edo mugak detektatu” nahi dituztela.

Orona Ideon egindako saioan euskara nola bizi duten partekatu zuten ikasleek, bakoitzaren esperientziak azalera ekarri; eta berba izan zuten baita ere ingelesera jotzeko nagusitzen dabilen joera. Horrez gain, ekimena Orona Ideon izanik, zenbait ikasle ingeniarietako dokumentazioa euskararaitzutzearren beharra azpimarratu zuten, besteak beste.

Ekosistema digitala KoNet

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Erabiltzaileari unibertsitateko zerbitzu digitalak eskuragarri izatea ahalbideratzen dion aplikazio mugikorra da. KoNet du izena eta Play Store eta App Store-en eskuragarri dago. Otsailaren 27an hiru fakultateetako Gradu, Master eta Lanbide Heziketako ikasle guztiei ireki zitzairen app-a, honako zerbitzuak eskainiz: norberaren matrikula ikusi, campusetan etxetik ekarritako janaria non jan dezakegun ikusi eta kafetegie buruzko informazioa (eguneko menua barne) kontsultatu, langile guztien direktorioa kontsultatu eta bertatik posta bidali edo telefonoz deitu, campus bakoitzean wifi-ra nola konektatu, unibertsitateko berriak jaso eta Mudle-era zuzenean sartu. Aurrerago notak ikusi, klase ordutegiak eta ekitaldien egutegia, Kirol Zerbitzuko agenda, Idazkaritza Akademikoarekin harremana eta Biblioteka ere kontsulta ahal izango da.

Jardunaldiak & ekintzak

Ate irekiak

Graduko ate irekiak

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA (ARRASATE)

- Apirilak 27, osteguna, 17:30etan
- Maiatzak 20, larunbata, 10:30etan, batxilergoko lehen mailako ikasleentzako

(GOIERRI)

- Maiatzak 4, osteguna, 17:30etan
- #### (DONOSTIALDEA / ORONA-IDEO)
- Apirilak 29, larunbata, 10:30etan
 - Maiatzak 20, larunbata, 10:30etan, batxilergoko lehen mailako ikasleentzako

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA (OÑATI)

- Apirilak 6, osteguna, 18:00etan
- Maiatzak 25, osteguna, 18:00etan, batxilergoko lehen mailako ikasleentzako

(BIDASOA)

- Apirilak 1, larunbata, 11:00etan
- Maiatzak 18, osteguna, 18:00etan, batxilergoko lehen mailako ikasleentzako

(BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA)

- Apirilak 1, larunbata, 11:00etan

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

(ESKORIATZA ETA ARETXABAETA)

- Apirilak 6, osteguna, 18:00etan
- Maiatzak 6, larunbata, 11:00etan

GRADUETARAKO SARBIDE PROBAK

- Apirilak 27, osteguna
- Ekainak 10, larunbata

INFORMAZIO SAIOAK

Hezkuntza modalitate erdi presentzialerako informazio saioak

- Maiatzak 6 (larunbata). 11:00. Aretxabaleta.
- Ekainak 15 (osteguna). 18:00. Aretxabaleta.

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - BASQUE CULINARY CENTER (DONOSTIA)

- Maiatzak 13, larunbata, 10:30etan

Maiatza

Maiatzak 4

Komunikaldia

Kirola, komunikabideak eta generoa. Aretxabaletako campusa. 10:00.

Maiatzak 11

Euspot

Euspot euskarazko spot lehiaketaren sari banaketa. Aretxabaleta. Arkupe kultur-etxea. 19:00.

Maiatzak 17

Richard Gerver hezkuntza

adituren hitzaldia "Education: The simple thinking behind a complex future."

Arrasateko Amaia antzokia. Bateko itzulpena euskara eta gaztelarrera. 18:30.

Maiatzak 18

Txomin Txapel

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko. Eskoriatzako campusean.

Maiatzak 22

Literatur topaketa

"40 urtetako sormenaren harrobia" Eskoriatzako Zaldibar udal aretoa. 09:00.

Maiatzak 25

Mahai-ingurua eta Ruper Ordorikaren kontzertua

18:00 Mahai-ingurua.

"Euskaldunon ezagutza-egiturak eraikitzen: 40 urteko iraskaspenak" (Eskoriatza. Kapera)

20:00 Ruper Ordorikaren kontzertua. Eskoriatza. Klaustroa.

Ekaina

Ekainak 2

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko **4. mailako ikasleen diplomaren banaketa**. Arrasateko Amaia antzokian.

Ekainak 16

Kooperatibagintza topaketa.

Eskoriatza. Gaia: gobernantza. 09:00.

Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko Gradu Bukaerako Lanen aurkezpenak eta Kimu Berri Sarien banaketa. Aretxabaleta. 09:15.

Ekainak 17

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko langile eta langile ohien jaia ospatzeko erakundearan 40. urteurrean. Eskoriatzako campusa. 11:00.

GRADOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/graduak

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

OTROS

Urria

MÁSTER UNIVERSITARIO EN ECONOMÍA SOCIAL Y EMPRESA COOPERATIVA:

Enpresagintza Fakultatea

MBA-MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS:

Enpresagintza Fakultatea

MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN CONTABLE Y FINANCIERA:

Enpresagintza Fakultatea

MÁSTER UNIVERSITARIO EN MARKETING DIGITAL:

Enpresagintza Fakultatea

MÁSTER UNIVERSITARIO EN INTERNACIONALIZACIÓN DE ORGANIZACIONES:

Enpresagintza Fakultatea

MÁSTER UNIVERSITARIO EN GESTIÓN ESTRATÉGICA DEL TALENTO DE PERSONAS - MTALENT:

Enpresagintza Fakultatea

LK PAY

“ORDAINDUKO DIZUT” ESATETIK

“ORAINTE BERTAN ORDAINDUKO DIZUT” ESATERA

go!
HORIXE DA JARRERA



Orain, **dirua doan bidali eta jaso dezakezu** mugikorretik mugikorrera, **LK Payrekin**. Nahiz eta zure banku berekoa ez izan eta ez jakin haren kontu-zenbakia. Nahikoa da aplikazioa deskargatuta izatea eta haren telefono-zenbakia zure kontaktuen artean izatea.



Consíguelo en el
App Store

DISPONIBLE EN:
Google play

- Deskargatu **LABORAL Kutxa Pay** App-a
- Eta lotu zure mugikorraren zenbakia zure kontuarekin



LABORAL
kutxa